

**JANTZIAK GORDETA**

Arabako zenbait herrietan aurtien ez dira jaiak ospatuko. Horren ordez, ekitaldi txikiak antolatuz dituzte ondo pasatzeko, segurtasun neurriekin, noski. Hortaz, pertsonaia mitologikoak eta jantzi tipikoak etxean utziko dituzte aurtien, hurrengo urtean berriz aieratzeko. *Argazkiak: JM./P.I.P.*

aurten etxean geratuko da, baina honakoa berrasmatzeko uda denez, San Prudentzioko danborradarekin egin zuten bezala -erretreta balkoietatik ospatu zutela-, formatu belduko jarduerak antolatuko dituzte, egoerari aurre egiteko eta amurriorrek jaiak era desberdin batean gozatu ahal izateko.

Josune Irabien, Amurrioko alkateak, penarekin aurreratu zuen jaiak bertan behera geratuko zirela, haiak Ama Birjinaren eguna (15ean) eta San Roque (16an) ospatzen baitute. Aurtien, segurtasun neurriak hartuko dituzte ekitaldi hauek aurrera ateratzeko, eta hurrengo urtean dena emango dute herritarrek, San Roque eta Ama Birjina omentzeko.

Laudio ere San Roque ospatzen dute, baina aurtien Roketxu txakurra eta bere lagunak ez dira aterako, eta laudioarrek ez diote ura eskatuko balkoietan dagoen jendeare txupinazio egunean. Alkatea, Ander Añibarro, formatu txikiako jarduerak ospatuko direla ere aurreratu du, eta **DIARIO DE NOTICIAS DE ALAVA** egunkariarekin hitz egin zuenean, trisurarekin aurreratu zuen hau dena.


**ABUZTUAN**  
*Ama Birjina eta San Juan*  
**Nanclares eta Agurain**

Abuztuaren 14tik 17ra Nanclares de la Oca bere jaiak ospatuko zituen, eta Agurainek 15ean eta 29an. Lehenengoan, El Brujo izeneko pertsonaia elizako dorrean geratuko da, eta bigarrenean ez dira Ama Birjina eta San Juan Degollado patroien omeneko ospakizunak egingo.

Hala ere, ez dute baztertu ekitaldi solteak egitea, nahiz eta jaialdi ofiziala ez egon, ondo pasatu ahal izateko. Hauek ere segurtasun neurri guztiak bermatu nahi dituzte, zer edo zer egingerakoan.

**ABUZTUAN**  
*Esker Onezko jaiak*  
**Oion**

Abuztuaren azken astean, 26a eta 31a bitartean ospatzen zuten Oiongo Esker Onezko jaiak bertan behera geratu dira aurreratu zuen udalak. Herritarrei egoera ulertzeko eta arduratsua izateko eskatu zieten, baita egun horietan formatu txikiako ekitaldiak antolatuko dituztela aurreratu ere. Izan ere, eta nahiz eta aurtien leku guztietan segurtasun



neurriak eta erantzukiduna nagusi izan, hauek errespetatuz eta edukiera ere kontrolatuz, ekitaldi txiki hauekin aurrera jarraituko dute. Hori bai, aurtien Katxlari agur esango diote, edo behintzat hurrengo urtera arte.

**IRAILEAN**  
*La Encina arteko ama*  
**Artziniega**

Irarilari begira, Artziniegako udalak ere agur esan dizkio La Encina arteko amaren omenez ospatzen diren jaiak, baita antzinako merkatuari, aurtien garrantzitsua segurtasuna bermatzea baita, covid-19a hemen dagoen bitartean.

Era horretan, Arabako herriek aurtien uda arraro bat biziko dute, Euskadin, Espainian eta munduan gertatzen ari den bezala, baina erantzukidunarekin jokatu, arabarrek jarraiera berezi hauetan parte hartuko dute, nahiz eta aurtien pertsonaia mitologiko eta miresgarriak -Katxia, Roketxu, El Brujo, etab.- haiekin guztiekin ez diren egongo. Hurrengo urtean izango da. ☺



**Carnicería GARMENDIA**

Especialidad en carne  
Euskal Okaia  
Andalucía, 13 Vitoria Gasteiz 945 287 942

**CLÍNICA VETERINARIA**

Vendo, por jubilación.  
Gran rentabilidad,  
sin cargas laborales  
tximeleta2019@outlook.es

dió eta Amurrio dira horren adibide. Udal hauek aurreratu dute aurtien ez dituztela jaiak ospatuko, baina formatu txikiako ekitaldiak antolatuko dituzte hauen ordez, herritarrek era seguruan ondo pasatu ahal izateko uda atipiko honetan.

**ABUZTUAN**  
*San Roque eta Ama Birjina*  
**Amurrio eta Laudio**

Amurrioko abuztuaren 11tik 17ra ospatuko zituen bere jaiak, baina covid-19ak bertan behera utzi du ideia hau. Beraz, Iguarrakoa -jai hauetako pertsonaia mitologikoa-

**Post-it**

- ☺ **Jaiak.** Herri guzti hauek -Amurrio, Laudio, Nanclares de la Oca, Agurain, Oion eta Artziniega, besteak beste- agur esan diote haien jaiak, eta haiekin batera, urtero datozen pertsonaia mitologiko eta miresgarriak. Izan ere, erantzukidunarekin jokatu nahi dute udalak.
- ☺ **Alternatiba.** Hala ere, eta herritarrek uda honetan ere gozatzen jarraitzeko, formatu txikiako jarduerak antolatzea aurreikusitako udalak, segurtasun neurri guztiak bermatuko dituztenak, alegia.